

Nagore
Alkorta
Elorza

Azpeitiko
alkategaia

ehbildu

**Maite
duzun
Azpeitia**

EGINGO DUGU.



Nagore Alkorta Elorza

1978an jaioa, Azpeitian

Azpeitiko alkatea, 2019-2023 agintaldian. EUDELeko lehendakariordea, 2019-2023 agintaldian.

Ikasketak

Zuzenbidean lizentziatua (EHU). Herri erakundeen kudeaketan graduondokoa (EHU).

Lan eskarmentua

Urnietako Udaleko idazkaria, 11 urtez. Azpeitiko Udaleko administrazio orokorreko teknikaria eta giza baliabideen arduraduna, bi urtez.

Dituen erronkei erantzuten dakien herria da Azpeitia. Herri aktiboa. Herrigintzan diharduena. Eta zailtasunen aurrean aukera berriak irekitzen dakiena. **Azpeitiarrok etorkizunari begira bizi gara, eta elkarlanean dihardugu.** Batzen gaituen horrek lotzen gaitu, Azpeitiak.

Asko aldatu da Azpeitia azken urteotan. Baina, asko dugu hobetzeko oraindik. Eta horretarako datozen urteak erabakiorrak izango dira. Izan ere, orokorrean, gizarte moduan; eta, zehazki, herri gisa, ditugun arazo estrukturaleri erantzuteko unean gaude.

Azpeitiak aurreratuta ditu erronka estrategikoei erantzuteko hainbat proiektu, eta horiek gauzatzea gure esku dago. Lur industrialak erabilgarri jartzea, adinekoentzako zentro polibalentea eraikitzea, transizio energetikoan edota etxebizitza politikan jauzi berri bat emateak azpeitiarren bizitzak hobetzeko balioko du.

Berdintasun balioetan oinarrituriko herri bat dugu amets. **Inor atzean utzi gabe, aurrera egingo duen herri bat.** Zailtasunak dituen hori babestuko duen komunitate bat. Eta bide horri bultzada eman asmoz, indarberrituriko taldea osatu dugu. Beste lau urtez Azpeitiaren alde lan egiteko konpromisoz eta azpeitiarrontzat garrantzitsuak diren proiektuak elkarlanean bultzatzeko borondatez.

Aldizkari honetan, herri moduan ditugun hainbat erronka eta proiektu jaso ditugu.

Horietako gehienak, udala eta herri eragileen artean landu eta bultzatzen ari garen egitasmoak dira. Finean, azpeitiarrok elkarrekin elikatzen dugun herri proiektuaren isla da orriotan jaso nahi izan duguna. Honela, **zurekin batera maite dugun Azpeitia hori eraikitzen jarraitzeko.**

EGINGO DUGU.

ehbildu



**Leire
Goenaga
Uzkudun**
39 urte



**Joanes
Amenabar
Altuna**
42 urte



**Ander
Larrañaga
Zinkunegi**
27 urte



**Leire
Sarasua
Odriozola**
46 urte



**Mikel
Odriozola
Arakistain**
41 urte



**Idurre
Zabaleta
Salegi**
45 urte



**Ion
Oteiza
Gereta**
40 urte



**Aitor
Larrañaga
Larrañaga**
60 urte



**Miren
Arrieta
Artola**
28 urte



**Amaia
San Vicente
Roncal**
39 urte



**Iñigo
Unanue
Aranguren**
33 urte



**Irune
Boo
Lerones**
44 urte



**Ioritz
Aizpuru
Goitia**
39 urte



**Mikel
Belar
Imaz**
46 urte



**Ane
Iturriza
Unanue**
26 urte




**Julian
Armendariz
Saralegi**
82 urte



**Axun
Esnaola
Biain**
51 urte



**Eneritz
Albizu
Lizaso**
31 urte



**Imanol
Agirre
Odriozola**
70 urte

ehbildu

Zugandik hasita, herri bat denontzat



Eskuartean duzun herri programa osatzeko, hainbat herritarren, eragileren eta adituren laguntza izan dugu. Urtarrilean hasi ginen **azken lau urteetako balantzea borobiltzen, egindakoak baloratzeko, eta aurrera begirako erronkei begira jartzeko.**

Lan hori eginda, **Zugandik hasita, herri bat denontzat parte-hartze prozesua abiatu genuen.** Prozesu horretan, ausazko 400 inkesta egin genizkien perfil guztietako herritarrei. Horrez gain, galdetegi ireki bat argitaratu genuen, azpeitiar guztiek izan zezaten iritzia emateko aukera. 184 azpeitiarren iritzia eta ekarpenak jaso genituen galdetegi horren bidez.

Ondoren, herri **batzarra egin genuen martxoaren 18an. Bertan, herritarrengandik jasotako ekarpenak eskuartean, datozen urteetarako erronkak zehazten hasi ginen.** Bideorri sendoa genuen, eta erabat osatu genuen parte-hartze prozesuaren zati izan ziren azpeitiarrei esker.

Behin lehen eskema eskuartean, **herri programa bost arlotan banatu dugu, eta arlo bakoitza lantzeko lan saioak egin ditugu apirilean.** Horrela, arloz arlo, interesa duten herritarrekin borobildu dugu herri programa.



Bost zutabe hauek dira prozesu honen emaitza:

- **Herri duinagoa.** Inor atzean utzi gabe, herritar guztien beharrak kontuan izanda, aurrera egingo duena.
- **Herri aktiboagoa.** Herrian bertan bizitzeko eta lan egiteko aukera emango duena.
- **Herri iraunkorragoa.** Larrialdi ekologikoari aurre egiteko neurriak udal kudeaketan eta bizimoduan txertatzen dituen.
- **Herri bizigarriagoa.** Herritar guztientzat herrian bertan eroso eta seguru bizitzeko aukerak eskaintzen dituen.

- **Herri errotuagoa.** Arloz arloko eragileekin eta norbanakoekin elkarlanean diharduena.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera herri programa hau osatzen parte hartu duzuen azpeitiar guztioi. Esan gabe doa, **dokumentu hau lan-tresna irekia eta dinamikoa da, behin eta berriro moldatzen eta osatzen jarraituko duguna.**

Denon artean lanean jarraituko dugu, Azpeitia herri bat denontzat izan dadin.

Herri duinagoa

INOR ATZEAN UTZI GABE, HERRITAR GUZTIEN BEHARRAK
KONTUAN IZANDA, AURRERA EGINGO DUENA.



ETXEZ ETXEKO ARRETA INTEGRALA ETA MENDEKO PERTSONENTZAKO ZENTRO BALIOANIZTUNA

Biztanleriaren zahartzea nabarmena da eta izango da Azpeitian datozen urteetan. Adinekoen kopurua %28 haztea espero da 2031 urte bitartean; eta menpekotasun egoerak, berriz, %32,5. Errealitate horren aurrean, zaintza politika publikoak erdigunean jartzen jarraituko dugu.

Etxean jarraitzeko hautua egiten duten herritarrak ondo zainduta egon daitezen, **etxez etxe**ko arreta indartzen jarraituko dugu, eguneko 24 ordutan martxan jarrai dezan. Bestalde, **adineko**ei etxean bezala eta etxetik gertu bizitzeko aukera emango dien zentro balioaniztuna eraikiko dugu **Perdille**giko eremuan.

Zaindua izateko eredu berritzailea praktikan jartzeko aukera emango du proiektu honek. Bizitza osorako etxebizitzak izango dira, gaur egungo eredu instituzionalarekin hautsiz. Eraikin horretan bertan, eguneko zentroa irekiko dugu, herrian bigarrena; horrela, herriko plaza kopurua areagotuta.

Prebentzioaren ikuspegitik, **mendekotasun eta desgaitasun egoerei aurre hartzeko, Eguneko Unitatea ere indartuko dugu.**

Eskura ditugun baliabideak premia berrietara egokituko ditugu, eta proiektu berritzaileak bultzatuko ditugu **zaintza ekosistema osoa** eraikitzeko.



Berdintasun politikak, udalean eta herrian

Gizarte honek benetako eraldaketa bat egingo badu, feminismoa politika publikoetan eta herritarren bizimoduan zeharkakotasunez txertatuta izango da. Horregatik, azken urteetan egiten ari garen bezala, gizarte gaietan ez ezik, udaleko sail guztietan **landuko ditugu berdintasun politikak**. Horretarako, **berdintasun plan berria egingo dugu**. Herrira begira, **Emakumeen ahalduzko kolektiboa bultzatuko dugu**, beharrezko baliabideak jarrita. **Indarkeria matxistaren aurkako protokolo berria ere abian jarriko dugu**, matxismoa eta indarkeria matxista errekonozitu, bistaratu eta esku-hartzeak programatzeko.

Integrazioa helburu izango duen harrera plan herritarra eta integrala

Integrazioa helburu izango duen **harrera plan herritarra eta integrala**. Munduko leku ezberdinetatik Azepeitira bizitzera etorri diren norbanako eta familiek jakin dezaten nora etorri diren, eta herrian integratzeko laguntza izan dezaten. Hizkuntza, kultura aniztasuna... kontuan izango dira. Euskara ikasteko ere erraztasunak eta bultzada emango zaizkie.

Ongizate emozionala

Buru osasun arazoak gero eta hedatuago daude gure gizartean, eta nerabeengan ere nabarmen igo dira motibazio falta eta tristura. Ongizate emozionala herri gisa dugun erronketako bat da, pandemiaren ondorioz are gehiago areagotu dena. Erronka honek elkarlan publiko-komunitarioa eskatzen du. Horri aurre egiteko, **prebentzioan oinarrituko den udal programa berri bat landuko dugu**, herrian esparru honetan lanean ari diren eragileekin elkarlanean.

PUNTUZ PUNTU:

- **Adinekoentzako etxebizitza tutelatuak:** Adinekoen autonomia eta harremanak sustatzeko azpiegiturak bultzatuko ditugu, Elizkaleko etxebizitza tutelatuak kasu.
- **Adinekoen bakardadea:** esku-hartze plana garatuko dugu.
- **Zaintza lanak duintzen:** Langileentzat laguntza eta formazioa sustatuko ditugu.
- **Prestazio ekonomikoak:** herritar zaugarrienentzat dirulaguntzak emango ditugu.
- **Herri inklusiboa:** kontzientziazioan lan egingo dugu: irisgarritasuna, zeinuen hizkuntza, piktogramen erabilera...
- **Gazteen emantzipazioarako erraztasunak:** alokairurako dirulaguntzak, udal sustapeneko etxebizitza eta etxebizitza dotazionalak eskaintzen jarraituko dugu.

Herri aktiboagoa

HERRIAN BERTAN BIZITZEKO ETA LAN EGITEKO
AUKERA EMANGO DUENA.



SUSTAPEN EKONOMIKORAKO LAGUNTZAK ETA INDUSTRIARAKO AZPIEGITURAK

Azken datuen arabera, %7ko langabezia tasa dugu Azpeitian. Eskualdeko eta Gipuzkoako langabezia tasaren azpitik dago. Hori berri ona bada ere, 516 langabe ditugu herrian, eta haien egoerari nahiz egoera prekarioan dauden beste hainbat langilerenari irtenbidea emateko lanean jarraituko dugu.

Lur industrialak eskuratu eta birgaitzeko konpromisoa hartzen dugu. Herriko hainbat lantegik adierazi dute horien beharra, eta eskaera horri erantzungo diogu. Batetik, azken urteetan geldirik egondako Larrin eremuaren inguruko lanketa martxan jartzea

lortu dugu; eta, epe motzean, lur industrialak erabilgarri jarriko ditugu. Bestetik, Landetako eremua birgaitu eta enpresentzako erakargarria izateko abian da plan berezia, datozen hilabeteetan garatuko duguna.


Bestalde, Sustapen ekonomikorako dirulaguntzak osatzen eta indartzen jarraituko dugu. Lau lerrotan banatuta, honako sektoreak laguntzen jarraituko dugu: zerbitzuen sektorea, lehen sektorea, industriako proiektuak, eraikuntzakoak, ekintzaileak eta aipatutako sektoreetan enplegua sustatzeko laguntzak.

Enplegu zentroa eta orientazio zerbitzua

Arlo honetan, arreta pertsonalizatua eskaintzen jarraituko dugu. Horretarako, Enplegu zentroaren bitartez, lan eskaintzen kudeaketari arreta berezia jarriko diogu. Gazteen talentua erakarri eta mantentzeko lana egingo dugu, batetik. Langabezia dauzen pertsonen prestakuntza eta inguruko enpresetan lan egiteko aukerak bilatuko dizkiegu, bestetik.

Prestakuntza eta Formazioa

Ulertzen dugu formazioa lana lortzeko eta enplegu prekarietateari aurre egiteko tresna dela. Horregatik, hemengo enpresa sarearen beharretara egokitutako formazioa bultzatuko dugu. Oinarrizko formaziotik hasi, eta lan munduan sartu edota lanbide kualifikatuak eskuratzeko bidean, irakaskuntza sistema oso bat osatuko dugu. Goi mailako ikasketak egitera gure eskualdetik kanpora doazen gazteei garraiorako bekak eskainiko dizkiegu.



Azpeitiko txikizkako merkataritzaren modernizazioa, eskualdatzeak eta jarduera berrien irekierak sustatzea.

Herri merkataritzak leku garrantzitsua du herri bizitzaren dinamizazioan eta tokiko ekonomian. Bertan merkatarik elkararekin elkarlanean jarraituko dugu, merkatarien kezka lehen pertsonan entzuteko. Bereziki, Alde Zaharrean neurriak bilatu behar ditugu, negozioen eskualdatzeak, oinordetzak eta jardura berrien irekiera sustatzeko. Horrez gain, Bertanekin batera, merkataritzako plan estrategikoa gauzatzeko laguntzak bideratuko ditugu. Bono kanpainak ere mantenduko ditugu, tokian tokiko erosketak sustatzeko.

PUNTOZ PUNTU:

- **Lehen sektorea indartzen jarraitzea:** Azoka plazaren proiektuak eragin positiboa izan du lehen sektorean eta haren garapenean, bide hori indartzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Turismoa ulertzeko modu propioa eraikiko dugu.** Azpeitiaren identitatean, baloreetan, ondarean eta egitasmo eraldatzaileetan oinarritutako eskaintza bat osatzea da helburua; eta, ondorioz, horrekiko interesa duen bisitaria erakartzea.
- **Ekintzaile eta ideia berriak garatzeko laguntza eta erraztasunak.** Ideia berriak garatzeko laguntzak eta ekintzaileen beharretara egokitutako baliabideak eskainiko ditugu, eskualdeko garapen agentziarekin elkarlanean.

Herri iraunkorragoa

LARRIALDI EKOLOGIKOARI AURRE EGITEKO NEURRIAK UDAL
KUDEAKETAN ETA BIZIMODUAN TXERTATZEN DITUENA.



PROIEKTU NAGUSIA: KRISI EKOLOGIKOARI AURRE EGITEKO INGURUMEN MAHAIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA, HERRITIK HERRIARENZAT.

Krisi ekologiko betean gaude. CO2 isurien ondorioz planeta berotu egin da, eta biodibertsitate galera handia izaten ari gara. Erregai fosiletan oinarritutako sistema errotik aldatu beharra dago. Eta horixe da uneotan mundu mailan daukagun lehentasunik handienetakoa. Ingurumen erronka ez ezik, erronka ekonomiko eta soziala ere bada eskuartean duguna. Eta horri nazio, eskualde nahiz herri mailatik erantzutea dagokigu.

Azpeitian hainbat pauso eman ditugu, baina ez da nahikoa. Eraldaketa sakona behar dugu. Horretarako, beharrezkoa da gizartearen

konpromisoa handitzea, eta haren parte-hartzea sustatzea. **Herritarrak eta herri eragileak trantsizio ekologikoaren elkarrizketan eta dinamikan inplikatzeko, Ingurumen mahaia jarriko dugu abian.**

Gobernantza eredu berrian oinarrituko da, kontsentsua bilatuz. Herri zein eskualde mailako prozesu parte-hartzaile bat izango da, deliberazio prozesu gisa, eta **lan zehatza izango du: krisi ekologikoari aurre egin eta trantsizio energetikoaren ezaugarri nahiz helburuak definitzea; eta haiek lortzeko egin beharreko bidea marraztea eta egitea.**

Energia kontsumoaren murrizketa

Azpeitiko kontsumo publikoen **diagnostikoa eta eskualdeko energia kontsumoarena aurten amaituko dira.** Kontsumoa murrizteko ekintzak zehaztu eta urrats gehiago egingo ditugu, eragile ekonomiko eta sozialekin elkarlanean. Arlo publikoari dagokionez, eraikinak birgaitzen jarraituko dugu, herriko argiteria osoa LED sistemarekin jarriko dugu (%25 falta da). Ildo beretik, energia bulegoa irekiko dugu, herritarren arretarako eta aholkularitzarako. Diru laguntza lerroekin ere jarraituko dugu.

Elikadura burujabetza

Bertako produktuen kontsumo eta elikadura jasagarria sustatzen jarraituko dugu, Azoka plazaren dinamizazioa bultzatuz. Herriko hainbat jangeletan bertako produktuen kontsumoa sustatzeko martxan diren dinamikak zabalduko ditugu. Elikagaien ekoizpena sustatzeko, eskualdeko lur bankua bultzatuko dugu. Gainera, trebakuntza eta ekoizpen lurren proiektuak sustatuko ditugu, herri mailan nahiz eskualdean ekoizle berriak sustatu eta laguntzeko, eremuko eragileekin elkarlanean.



Energiaren sorkuntza demokratikoa eta berriztagarria

Ekindarren gisara, herritarren jabetzako instalazio berriak sustatuko ditugu. Herritarrez gain, lantegiei edota erakunde publikoei ere parte hartzeko aukera emango dien herri egiturak sortzeko proposamen tekniko-juridikoa landuko dugu. Bitartean, enpresa handiekiko menpekotasuna luzatzera datozen egitasmoen aurka egingo dugu. Bide horretan, jasagarrienak diren egitasmoen alde egiteko, hainbat proiektu aztertu, eztabaidatu eta adostea ezinbestekoa izango da. Bestalde, LAIEN-en bidez (Lapatx ingurumena energia), Lapatxen bigarren zatia zigilatuko dugu. Horrela, hondakinen kudeaketaz gain, instalazio fotovoltaikoak egingo ditugu; baita elektrizitatea sortzeko instalazioak ere.

PUNTOZ PUNTU:

- **Basogintza:** bertako baso naturalen itzulera azkartzeko egitasmoak sustatuko ditugu, eragileekin.
- Mugikortasun plana garatuko dugu, **garraio publikoaren** erabilera sustatuz. **Herria egokituko dugu jendea oinez eta bizikletaz ibiltzeko.**
- **Gaikako bilketa:** Hondakin gutxiago sortzea da erronketako bat, eta horretarako kontsumo arduratsua eta sentsibilizazio lanean jarraituko da.
- **Ekonomia zirkularra:** industriako hondakinak gaika jasota material berrerabilgarriak bereiztuko ditugu, eta hondakin horiekin ekonomia zirkularrean oinarritutako proiektu berriak bultzatuko ditugu.

Herri bizigarriagoa

HERRITAR GUZTIENTZAT HERRIAN BERTAN EROSO ETA SEGURU
BIZITZEKO AUKERAK ESKAINTZEN DITUENA.



ETXEBIZITZA POLITIKA ERALDATZAILEA

Etxebizitza politika aurrerakoi eta iraunkorren bidez, herrian bertan bizi nahi duten azpeitiar guztiei horretarako aukera eskaintzea da gure helburua. Etxebizitza oinarrizko eskubidea den arren, hainbat herritarrentzat oso zaila da behar hori asetzea: gazteen edo diru-sarrera baxuak dituzten familien kasuan, besteak beste. Horregatik, EH Bilduren lehentasunezko erronka da eskubide horri erantzutea eta herritarren beharretara egokitutako etxebizitza eskaintza egitea.

Horretarako, dagoeneko herriko egoeraren inguruko azterketa egin da, eta osatuta dago datozen urteetan gidalerro izango den Etxebizitza plana. Lan lerroak:

- **Etxebizitza bulegoa:** Etxebizitzaren arloan arreta pertsonalizatua.

Herritarren kezkei, beharrei eta eskariei erantzungo dien zerbitzu publikoa izango da.

- **Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatu eta alokairura bideratzea.** Honek alokairuko dirulaguntzak indartzeko aukera emango digu.
- **Babes publikoko etxebizitza berriak sustatzea.** Esaterako: Santutxoko 28 babestutako etxebizitza, Esklabetako alokairu sozialeko 48 etxebizitza, Elizkaleko hamabi alokairu sozialeko etxebizitza eta Goikokaleko behar sozialetarako etxebizitzak.
- **Etxebizitza parkearen eta eraikinen birgaitzea sustatzea.** Etxebizitza zaharrak egokitzeko dirulaguntzak eskainiko ditugu.

Amue eremua

Amue eremua, Corrugados lantegia kokatutako zegoen gunea, herritarren erabilerarako berreskuratuko dugu.

Bertan, berdeguneak, oinezkoentzako pasealekuak eta espazio irekiak izango dira nagusi. Horrez gain, etxebizitzak eta herri erabilerarako ekipamendu komunitarioak ere eraikiko ditugu etorkizunean. Amue eremuko Plan Bereziari emandako hasierako onarpenarekin, itxita gelditu da bertan berriro lantegi bat irekitzeko aukera. Orain, ordea, hainbat lan ditugu egiteko: gaur egungo instalazioen eraistea eta lur industrialen deskontaminazioa, hasteko. **Gure esku dagoen guztia egingo dugu Amue eremuaren garapena ahalik eta azkarren eta egokien gauzatu dadin.**

Azpiegituren etengabeko berritzea

Herriko eragileekin elkarlanean jarraituko dugu, azpiegiturek herriko beharrei erantzun diezaieten. Kultur arloari dagokionez, esaterako, epe motzera begira, Udal Euskaltegia Telefonikako eraikineria mugitu eta Soreasuko Dinamoan musika eskola berria egingo ditugu. Kirolaren kasuan, azpiegiturak sendotuko ditugu, Kirol planean jasotakoaren harira, epe ertainean erabiltzaile gehienak 50 urtetik gorakoak izango direla jakinda. Horrez gain, hainbat eraikin zaharkituta eta berritzeko premian daude. Kirol taldeekin elkarlanean aztertuko dugu haien egoera, eta berritze lanen lehentasun plan bat zehaztuko dugu.



Kaleetako irisgarritasuna eta mantenua

Obra txikien ikuspegi osoak eta jarraikorrek herritar guztien bizi kalitatea hobetu dezake, batik bat, behar gehien dituzten haiena: adinekoak, aniztasun funtzionalak dituzten pertsonak edo haurrak, esaterako. **Kale eta auzo integratzaileak nahi ditugu, denekin pentsatuta egindakoak.** Horretan jarraituko dugu, lanaren efizientziari eta azkartasunari garrantzia berezia emanda, herritarrekin elkarlanean. Eskuaratean ditugu hainbat proiektu: anbulatorioko zubia guztiz egokitzea, Urrestillako kale nagusien urbanizazioa, igerilekuko irisgarritasuna hobetzea... **Oinezkoentzat lehentasuna izango duen herri seguru bat** lortzeko lanean jarraituko dugu.

PUNTOZ PUNTU:

- **Herri gunetik kanpoko auzoak:** Auzotarren kezkak eta beharrak ezagutzeko, auzokideekin biltzen jarraituko dugu.
- **Alde zaharra:** Alde zaharra biziberritzeko ahalegin berezia egiten jarraituko dugu. Egoera txarrean dauden alde zaharreko eraikinentzako aterabide egokia aurkituko dugu, etxe hutsak birgaituta.

Herri errotuagoa

ARLOZ ARLOKO ERAGILEEKIN ETA NORBANAKOEKIN
ELKARLANEAN DIHARDUENA.



HERRI HEZITZAILEKO BALIOAK, MODU PRAKTIKOAN, ARLOZ ARLO LANTZEA

Berdintasun balioetan errotuta dagoen herri bat dugu helburu. **Herri feminista, parte-hartzailea, euskalduna, anitza, ingurumenarekin konprometitua eta kultur ondarea baloratu eta transmititzen duena.** Horiek dira irudikatzen dugun herriaren ezaugarriak, **arlotz arlo zeharkakotasunez landu nahi ditugunak.**

Herriko talde eta elkarte guztiak ari dira azpeitiarrak hezten. Lan eremu desberdinak izan arren, bat egiten dute helburu eta balio askotan. Talde horien jarduna erreferentziazkoa eta nahitaezkoa da. Dena den, **beharrezkoa da eragile horiek guztiak elkarrekin harremanetan jartzea, eta balio komunak konpartitzea.** Esaterako, kiroltik lantzen da parte-hartzea, berdintasuna eta aniztasuna. Kirola euskara zaindu eta indartzeko gunea izan daiteke, eta kultura desberdinetako herritarrak batu ditzake. **Berdintasun balio guztiak batzen**

dituen betaurrekoak jantzi nahi ditugu, jautzia emateko, eta herri bezala hezteko.

Horretarako, **beharrezko baliabideak jarriko ditugu eragileen eskura, herri hezitzailearen ideia teoritik praktikara eramateko gai izan gaitzen.** 2018tik abian da Herri Hezitzailearen lantaldea. Azken hilabeteetan erronka berriak zehazteko prozesu bat egin du, eragileekin: harrera plan komunitarioa, haurrak modu autonomoan herritik mugitzeko baldintzak sortzea eta elkarguneen arteko koordinazioa. EH Bildutik geure egiten ditu helburu horiek, eta herri errotuago baten testuinguruan kokatzen ditugu.

Udaleko sail guztietan ere bide hau lantzen jarraituko dugu, udal plan eta proiektuek berdintasun ikuspegi hori izan dezaten.

Izan ere, aurrez herri programa honetan zehaztutako arlo guztiek dute eragina herri errotuago bat osatzeko bidean.

Kirola

Kirol plana egin da 2019-2023 agintaldian. Bertan jasotakoaren harira, **eskaintza indartuko dugu, herritar guztiak izan dezaten kirola egiteko aukera.** Horretarako, norbanakoentzat eskaintza zabaldu eta dibertsifikatuko dugu. **Antolatutako kirol taldeei dagokienez, haien ondoan izango gara, eta aholkularitza zerbitzua sortuko dugu.** Gure herriko taldeen kezka eta gabeziak denon artean konpontzeko baliabideak jarriko ditugu, elkarrekin osatzen dugulako Azpeitiko kirol eskaintza.


Kultura

Herritarren inizatibari esker, bi hankako kultur politika dugu. **Kultur Mahaiaren bueltan batzen dira herriko taldeak eta norbanakoak; bertan, haien beharrei erantzuten dieten proposamenak eta estrategiak egosten dira. Udalak, bere aldetik, beharrezko baliabideak jartzen ditu, kultur ekosistema hori mantentzeko eta indartzeko. Gure helburua da ildo berean lanean jarraitzea, funtzionatzeko modu hau estrategikoa delako eta arloz arlo zabal daitekeela sinisten dugulako. Epe motzean, herri ekimenetik sortutako liburu dendaren proiektua sustatuko dugu.**



Hezkuntza

Azken urteetan hezkuntza arloko eragileen arteko elkarlana etengabea izan da. Dagoeneko abian ditugu datozen hilabete eta urteetan loratuko diren hainbat egitasmo: haurren kontseilua, prebentzioan oinarritutako hezkidetzeta eta tratu onak programa, pantaila eta sare sozialen erabilera ona sustatzeko programa pedagogikoak, kulturartekotasuna eta euskara batzen dituen prozesua, guraso eskolak, eskaintza bateratua eta abar. Hau guztia garatzen jarraitzeko herriko hezkuntza kontseilua sortuko dugu.



Euskara

Dagoeneko abian da herriko eragileek eta norbanakoek osatutako euskara mahaia. Mahai horren norabidea marrazteko, Euskara Plana osatu genuen iaz, parte-hartze prozesu baten bidez. Euskara Mahaia indartuko eta sistematizatuko dugu, beharrezko baliabideak jarrita. **Mahai honen helburua da, kultur esperientziari jarraiki, erabakigune izatea, hizkuntza normalkuntzan esparru guztietatik eragiteko.** Horrez gain, doako euskalduntzea bermatzen jarraituko dugu, maila eta modalitate guztietan.

Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



Maddalen
Iriarte
Okiñena

Gipuzkoako
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

*Gipuzkoak dituen
aukera guztiak
baliatuko ditugu, inor
atzean gera
ez dadin.*

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena. Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bertutuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.

ehbildu

🐦 @MaddalenIriarte

📘 Maddalen Iriarte Okiñena

📍 maddaleniriarteokinena

🌐 ehbildu.eus